

TREBETASUNAK IKASTEKO ESKU HARTZE ESTRATEGIAK

Joko serioa



Gaur egun, mahai edo taula jokoen berpizkundera bizi dugu. Proposamen berri ugari daude, nahiz eta herritarren artean eta lan testuinguruetan oraindik ez diren oso ezagunak.

Gure ustean, **halako joko askok, oso interesgarriak ez ezik praktika profesionalean aplikatzeko modukoak ere badira**, ikasteko eta trebetasunak lantzeko tresnak izan daitezkeelako kolektibo eta testuinguru desberdinetan.

Gaur egungo korrante metodologiko batzuen arabera **“gamifikazioa”**, kasu, gaitasun berriak ikasi eta landu daitezke esperientzia esanguratsu eta motibatzaileak sustatuz; esaterako, testuinguru ludikoetan bizitzen diren bezalako esperientzien bitartez.

Honelako testuinguru profesionalen batean diharduten **pertsona guztiei zuzenduta:**

- Pertsonekin harremanetan ibiltzen direnei.
- Taldeak kudeatzen dituztenei.
- Praktika berritzaileekin saiatu nahi direnei.
- Hartzaileentzat erabilgarriak eta erakargarriak izango diren teknikak bilatzen dituztenei.

Helburuak

- ✚ Ludoteken kontzeptu klasikoa eta **“esku hartze gamifikatuena”** bereiztea.
- ✚ **Dauden ikaskuntza aukeretan eta sustatu eta garatu daitezkeen trebetasun desberdinetan** oinarrituz, jokoen zer katalogo dauden eskuragarri jakitea (joko kooperatiboak versus joko lehiakorak; estrategia jokoak, logika, merkataritza, begi zorroztasuna...).
- ✚ Jokoa tresna gisa erabiliz, guk dihardugun testuinguru desberdinetan aplikatzeko moduko estrategiak **esperimentatu eta ikastea**.
- ✚ Ingurune profesionalean **sormena eta berrikuntza** sustatzea.

Edukiak:

Ingurune gamifikatu bat sortzea.

Tresna erabiliz, honako hauek praktikan jartzea:

1. Arreta / Kontzentrazioa.
2. Hitzeko komunikazioa, hitzik gabeko komunikazioa.
3. Estilo agresiboa, pasiboa eta asertiboa.
4. Frustrazioarekiko tolerantzia.
5. Irudimena eta albo pentsamendua.
6. Negoziatzeko estiloak: Galdu/galdu, Irabazi/galdu, Irabazi/irabazi.
7. Joko kooperatiboa / Talde lana.

Metodologia

Halako tresnak inplementatzen ibilbide profesional luzea egin ondoren, eta tresnak bai norbanako bai talde formatuan praktikan jarri ondoren, gure asmoa dakigun hori ezagutaraztea eta jakintza hori tailer bihurtzea prestakuntza ingurune batean, kide profesionalekin eta ikasleekin batera egitea da.

Erabiliko den ikuspegi **teoriko-praktikoaren** bitartez, parte hartzaileak metodologia eta tresnak praktikan jartzeko trebatuko dira, eta aukerak sortuko dira ikuspegi horretatik bururatutako proposamen berriei bidea egiteko.

Modu praktikoan landutako tresna bakoitza **testuinguru eta pertsona desberdinekin zer aplikagarritasun daukan** aztertuko da.

Bertaratutakoek ekarritako proposamenak eta bidean agertzen diren kasu praktikoak ere landuko dira.

9 orduko tailerra da, 2 saio presentzialetan banatua.



Josu Fernandez Menchaca

Gizarte hezitzailea, pedagogo eta Gestalt terapeuta. 10 urtetik gorako esperientzia dauka gizarte hezitzaile gisa haurrak, familiak eta pertsona helduak babesteko zerbitzuetan.



Asier Fernandez Plaza

Psikologoa, gizarte hezitzailea, esku hartze sistemikoetan espezialista eta psikomotrizista. 10 urtetik gorako esperientzia dauka gizarte hezitzaile gisa haurrak, familiak eta pertsona helduak babesteko zerbitzuetan.



Datak eta ordutegia: Azaroaren 18an (ostirala) 16:30etik 20:30era, eta 19an (larunbata), 9:30etik 14:30era.

Lekua: Agintzari GEK, Madariaga Etorbidea, 1, 4. Solairua, 48014, Bilbo

Prezioa: 100 €

Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko:

Tel: 94.474.52.55.

formacion@agintzari.com

www.agintzari.com/formacion